



BARREN
TOKIKOM

Amoranterik intimoena

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20650 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
itender@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR



Fontanería
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Igor Santana
Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA




Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZITATEA



Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20670 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
egoluz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

- Igeltseritza
- Pintura

- Aroztegiak
- Erreformak

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Zer DA Euskaraldia?

Euskaraz gehiago egiteko ariketa da.

Hizkuntza-ohituretan eragiteko ariketa soziala.

- Norbanakoen ohituretan: etxekoekin, lagunekin ...
- Talde ohituretan: lanean, elkartean ...

Zer EZ DA Euskaraldia?

Ez da kanpaina bat.

Ez da euskararen alde egotea.



Euskaraz BAKARRIK egingo diet
euskaraz ulertzen dutenei.



Euskaraz dakitenei niri euskaraz
egiteko adieraziko diet.

Rolen aukeraketa, batez ere, jarrera kontua da. Bi aukeretatik, zer egin nahi dut? Zer egiteko prest nago?

Euskararen alde egotetik euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egitera pasa nahi baduzu, eman izena Euskaraldian.

www.euskaraldia.eu
euskaraldia@elgoibar.eu



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Dilema

Bi presoek isilik geratzea erabakitzen badute, bakoitzari urtebeteko espetxe zigor laburragoa ezarriko diote, beste ezertarako nahikoa ebidentziarik ez dago-eta. Aldiz, biek ala biek hurkoa traizionatzea erabakitzen badute, bosna urteko espetxe zigorra egokituko zaie.

Lau dira aukera posibleak: biak isilik; elkar saldu; bata isilik eta besteak traizionatu; eta alderantziz.

Jakina, gela berezietan egonik, ez dira jabetuko, besteak hartu erabakiaz, norbere erabakia bestearenari moldatzeko. Funtzionario makiabelikoak.

Sar gaitezen, esaterako, A presoaren gogoan. Honatx bere argudioa:

“Bi aukera dauzka B.-k. Isilik geratzea edo traizioa. Isilik geratzen bada, ni isilduz, urte bana bakoitzari; eta traizionatuko banu, hamar berari eta ni libre. Hobe traizionatzea, alafede! Aldiz, traizionatuko banindu, ni isilduz, bera libre eta hamar urte niri; eta nik ere traizionatuz, bosna urte bakoitzari. Hobe traizionatzea, zinez! Beraz, hobe traizionatzea, eiki, B.-k egiten duena egiten duela!”.

Tamalez, B. preso, ezin uka, ez da A. baino inozoagoa, ergelagoa edo buruz makalagoa, eta konklusio bera du ediren, luze gabe. Laguna saldu.

Oi, laguntasunaren ahula! Oi, patuaren makurra! Oi, gizon-emakumeon geroaren iluna! Benetan ez al dira jabetuko, dohakabeok, poetak zioen moduan, isilik egoteak zenbat balio duen?

*“Oi, laguntasunaren ahula! Oi, patuaren makurra!
Oi, gizon-emakumeon geroaren iluna!”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► GIZARTEAK ZALDIBARREN ZER GERTATU DEN JAKIN NAHI DU

Ostegun honetan, *Berría* egunkarian irakurri dut Verter Recycling 2002 SM enpresaren jabeek zaborteziaren ontzia puska zitekeela jasoa zutela, teknikarien bidez, azkena, zaborteziaren amildu zen egunean bertan. Baina langileak ez zituzten egoeraz abisatu non bait. Otsailaren 7an (zaborteziaren otsailaren 6an erori zen) bilera tekniko bat egitekotan geratu ziren teknikariak eta enpresako arduradunak, baina topaketa hura ez zen inoiz egin. Denok dakigun bezala milaka tona hondakin jausi ziren, eta haiekin batera, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran harrapatuta geratu ziren. Sololuzeren gorpua aurkitu zuten, baina Beltranen gorpua ez dute oraindik aurkitu.

Jaurlaritzak ere ba omen zekien 2015etik Zaldibarko zaborteziaren lurra mugitzen ari zela. Tamalez, agerian geratu da, segurtasunean egon zitezkeen arriskuei muzin egin eta zaborteziaren arduradunen kudeaketa okerra izan dela, ondorio larriekin.

Egoera honen aurrean oposizioko alderdiek ikerketa batzorde bat osatzeko eskatu diote parlamentuari, gizar-teak Zaldibarren zer gertatu den jakin nahi duelako, eta zer esku hartze izan duen (edo ez duen izan) zaborteziaren segurtasunaren azken arduradun den administrazioak. Zaldibar argitu!

A.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitueez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datarren eskutitz argitaratuko.



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

OUTLET

Marka duten produktu guztiak

%50 **deskontua izango dute.**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

BARREN sare sozialetan



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



Muruamendiaraz gozotegia itxi zuten domekan, eta horrenbestez, 85 urteko ibilbideari amaiera eman zioten

Betirako itxi zuen atea joan zen domekan Muruamendiaraz gozotegiak, 85 urteko ibilbidearen ostean. Familiko negozioa izan da Muruamendiaraz gozotegia Jose Muruamendiaraz eta Maria Bastarrika senar-emazteek 1935. urtean sortu zutenetik, eta harrezgero, haien ondorengoek eutsi diote tradizioari. San Frantzisko kalean zabaldu zuten denda, gaur egun Rural Kutxa dagoen lekolean. Denetik saltzen zuten dendan, eta Jose gozogilea zenez, pastelak ere hasi ziren saltzen. 1943an lekualdatu ziren San Bartolome kalera, eta 1963an bereiztu egin zituzten janari denda eta gozotegia, bi lokaletan. Gerora, lokal batean gozotegiko obradorea kokatu zuten, eta bestean, denda. 2006an zabaldu zuten obradore berria Sigmako industrialdean, eta horri esker hasi ziren pastelak Elgoibartik kanpora ere banatzen. Debagoieneko herri gehienetan banatzen zuten, eta Debabarrenean ere ia herri guztietan. Muruamendiaraztarrek erretiroa



hartu dute baina, eta ez dute negozioa hartuko duen ordezkorik aurkitu. Eginahalak egin dituzten arren, azkenean negozioa itxi egin behar izan dute.

Karakoleko zubia berritzeko obrak lizitaziora atera ditu Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak lizitaziora atera ditu San Roke auzorako irisgarritasuna hobetzeko lanak, eta horien artean, Karakoleko zubia berritzeko obra dago. Lan horiek 105.377 euroko (BEZa barne) aurrekontua izango dute, eta eraikuntza enpresek urriaren 19ra arteko epea edukiko dute proposamenak aurkezteko. Aipatzekoa da 2019ko partaidetza bidezko aurrekontuetan aurkeztu zituzten 14 proiektuen artean, boto gehien jaso zuen proiektua dela Karakoleko zubia berritzearena, 346 punturekin. Azaldu dute udal arduradunek zubia erabilgarri eta "egoera funtzional onean" dagoen arren, denboraren joana igartzen dela egiturari. Zehaztu dutenez, egitura, gailur, baranda, estaldura, zoladura zein argiztapenari eragiten dizkioten zenbait gaitz ditu. Itxurari dagokionez, gaur dituenak baino kolore tonu argiagoetan margotuko dute zubia. Lanok bizpahiru hilabete iraupena izango dute.

Mendira joko dute bihar 'Izan Bidea' egitasmoaren barruan

Presoen eskubideak aldarrikatzeko, Euskal Herriko biztanleak adina kilometro egiteko helburuarekin sortu zuen Sarek *Izan Bidea* ekimena, eta horren barruan, Euskal Herriko tontorretara igotzeko deia egin dute biharko. Elgoibarren, Morkaikora igoko dira. 9:30ean abiatuko dira oinez Kalegoen plazatik, eta 10:45ean batuko dira Aias-tian autoz joaten direnekin. Handik denak batera joango dira Morkaikoko tontorreraino. Mendaron, aldiz, Garaluz, Otarre eta Gaintxipixa tontorrek egingo dituzte. 9:30ean irtengo dira udaletxe azpitik.

Debabarreneko azoka ekologikoa egingo dute bihar

Debabarreko azoka ekologikoa egingo dute bihar Eibarren, Txaltxa Zelaiko plazan. Azokan erosi ahal izango diren produktuek bi ezaugarri dituzte: batetik, modu ekologikoan zainduak izan direla eta bestetik, era artisauro baten ekoiztu dituztela. Azokaz gain, Gutizien Ibilbidea ere antolatu dute, eta sail horretan parte hartuko dute Elgoibarko Beraseta eta Txillarre baserriek. 10:00etatik 14:00etara iraungo du azokak.

Denden atarietara aterako dituzte produktuak asteburuan, Txankakuaren Stock Kale azokan

Maalako parkean egin izan ohi dute Txankakuaren stock azoka, baina aurten, jende pilaketak sahiesteko asmoz, denden atarietan egingo dute. Gaur eta bihar dendetako atarietara aterako dituzte produktuak, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etik 20:00etara. Horrekin batera, Txankakuako maskotak ere ibiliko dira kalean, piruletak eta globoak oparitzen. 23 dendak hartuko dute parte: Arauri Lurrindegia, Bizkor Bizikletak, Casa Astigarraga, Ecenarro Merzeria, Ene Bada, Farmazabal, Federopticos Ikus, Ferpi jantzidenda, G & M jantzi-denda, Garate jantzi-denda, Goiara Droguerria, Ipintza Margoak, Iria Moda, Iriondo Altzariak, Iriondo Kirolak, Lagunak Koltxoidenda, Lete, Moma jantzi-denda, Nalai Oinetakoak, Olaia Martinez Estetika Zentroa, Pitxintxu, Sara jantzi-denda eta Uzuri Optika. Oinezkoei lehenetsuna emateko, San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleak motordun ibilgailuentzako itxi egingo dituzte. Ekimen hau herriko ekonomia suspertzeko ekintzen barruan sartu du Udalak, eta erosketak egiten dituzten guztien artean 100 euroko hiru erosketa bono zozketatuko dituzte.



Mendaroko II. Berdintasun Plana egiteko parte-hartze prozesua jarri dute martxan

Mendaroko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. plana garatzen hasi da Udala, eta herritarren iritzia entzun nahi du egungo egoera zehatzago ezagutzeko. Daiteke Gizarte Aholkularitzak gidatuko du herriko eragile desberdinekin egingo den prozesu partehartzailea, Mendaroko emakume eta gizonen berdintasunaren egoeraren ikuspegi integrala izateko. Lehen hitzordua urriaren 8rako jarri dute, 19:00etatik 20:30era, udaletxeko pleno aretoan. Parte-hartze saioen helburua da herritarren beharrak eta ikuspegiak entzutea, ondoren udalerriko behar eta erronkei erantzuneko dien II. Berdintasunerako Plana diseinatzeko.


Kalitatezko osasun publikoaren aldeko protestak egin dituzte Mendaroko Ospitalean



Osakidetzako langileek mobilizazioak hasi dituzte gizarteari "muturreko egoera" bistaratzeko. Lehen Arretako zentroetan egin zituzten protestak aurrena, eta joan zen barikuan, ospitaleetan. Mendaroko Ospitaleko hainbat langilek ere bat egin zuten LAB, SATSE, ELA, SME, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek deitutako geldialdiarekin. Bihar manifestazioa egin dute Bilbon, 12:00etan. Osakidetzak onartu du Euskal Osasun Sistema "indartu beharra" dagoela, eta horretarako datozen lau urteetan lehen arretan 4.000 lanpostu sortzea aurreikusita dagoela jakinarazi du.

Rafael Segui txapeldunorde Gipuzkoako arku tiraketan

Gipuzkoako Arkutiro Federazioak eta Azeri klubak antolatu zuten Gipuzkoako txapelketa, eta Hondarribiko San Telmo jaurlerian jokatu zuten domekan. Guztira 31 arkulari lehiatu ziren, bost arku modalitateetan. Rafael Segui arku instintiboarekin lehiatu zen eta sailkapen seriean 30 metrora zegoen dianara 72 gezi jaurti ostean, 461 puntu eskuratu zituen, kanporaketetarako sailkatzea lortuz. Finalean 6 eta 4 galdu zuen.



2021erako udal zergak eta tasak izoztea onartu du Elgoibarko Udalbatzaren osoko bilkurak

Covid19ak sortutako osasun eta ekonomia krisi egoeraren aurrean, 2021erako herritarren presio fiskala lasaitu nahi izan du Elgoibarko Udalak, eta datorren urterako udal zergak eta tasak izoztea erabaki zuten eguazteneko Osoko Bilkuran. Zaborren tasaren gainean, salbuespen bat ere egongo da. Orokorrean zaborraren tasa izoztu egingo dute, baina kasu batzuetan jaitsi ere egingo dute: Bost langile arteko lantoki, denda, zerbitzu taberna edo jatetxeek %5eko jaitsiera izango dute zaborraren gaineko tasan. Erabaki horrek 19.000 euroan txikituko ditu Udalaren diru-sarrerak, baina herriko jarduera ekonomikoa babestearen alde hartu dute erabakia. EAjk nabarmendu zuen azken legegaldietan egin duten kudeaketa "arduratsuari" esker, Udalaren finantza-egoera "osasuntsua" dela, eta orain datorren krisi egoeran gerrikoa estutu ahal izango dutela elgoibartarren mesedetan.

Debarreneko mankomunitateak iazko udan baino hondakin gehiago batu ditu aurtengoan gaika

Debarrenako Mankomunitateak jakinarazi duenez, 2020ko udan 2019koan baino hondakin gehiago jaso ditu gaika bereiztuta. 2020ko datuen arabera, urtariletik abuztura bildu duten zaborraren %55,11 bildu dute gaika sailkatuta Debarrenean, 2019an baino %1,07 handiagoa. Hobekuntza "leunak" somatu dituztela esan dute arduradunek, batez ere organikoaren gaikako bilketan eta baita papera eta kartoiarenean. 2020ko uztaillean eta abuztuan 734 tona organiko jaso dituzte guztira, eta 2019an, berriz, 644 jaso zituzten. Papera eta kartoiari dagokionez, 611 tona jaso dituzte aurten, eta iaz, 500 tona. Mankomunitatetik jakinarazi dute lanean jarraituko dutela 2030. urtera begira jarritako helburua lortzeko: eskualdean sortutako hondakinen %70 gaika biltzea. Horretarako, hainbat proiektu jarri dituzte martxan: hala nola, fruta denda, jatetxe eta pintxodun tabernetan hondakin organikoak gaika jasotzeko kanpaina edo Deba, Mutriku eta Elgoibarko tabernetan gaika biltzen den beira kopurua handitzeko kanpaina. Bide batez, gogorarazi dute hondakin bakoitza bere edukiontzian botatzeak duen garrantzia, izan ere, hondakinak edukiontzi okerrera botatz gero, edukiontzi guztia kutsatzen da, eta gainerako biztanleek ongi egindako bereizketa zapuztu daiteke.

Franko ohorezko alkate titulurik gabe utzi dute

Franko diktadoreari alkate titulua kentzeko mozioa aurkeztu zuen Podemosek Elgoibarko Udalbatzaren osteguneko osoko bilkuran, eta aho batez onartu zuten.

Elgoibarren autobus zerbitzu publikoa ezartzea aztertuko dute alderdi guztien artean

Urazandin eskailera mekanikoak zeuden lekuan igogailu publiko bat egiteko lanak hasi zituzten abuztuan, eta harrezgero herri barruko autobus zerbitzua ipini zuen martxan Udalak. Hiru geldileku ditu: Urazandin, Maalan eta Erretsundin. Obrak amaitu bitartean mantenduko dute zerbitzu hori, baina herri guztira zabal daitekeen aztertuko dute alderdiek datozen hilabeteetan. Zerbitzua beste auzo batzuetara zabaltzeko beharra, momentuan dauden baliabideekin uztargarria den ikusi behar dela zehaztu dute Udaletik.



PSE-EEko zinegotzi kargua laga du Fernando Suarezek

Eguazteneko Osoko Bilkuran uko egin zion Fernando Suarezek PSE-EEko zinegotzi karguari, arrazoi pertsonalak argudiatuta. 1975ean afiliatu zen Euskadiko Ezkerra alderdira, eta handik iritsi zen PSE-EEra. 1999an hartu zuen zinegotzi kargua eta 21



urte egin ditu Elgoibarko udaletxean. Une onak eta txarrak bizi izan dituela aitortu du, baina balantze positiboa egin du. Ariana Nogalesek ordezkatu du. Gazteen ordua dela uste du Suarezek, baina hala ere, Elgoibarko PSE-EE alderdiko kide izaten jarraituko du eta aholkulari lanetan laguntzeko prest agertu da. Eskerrak eman dizkie 21 urte hauetan babesa eman dioten elgoibartar guztiei.



▶ IBAN URIZAR 'AMORANTE' MUSIKARIA

“Udazken-negurako diskoa irten zaigu eta gustura gaude emaitzarekin”

Rodrigo Amarante musikari eta konpositore brasildarrari eta Enrique Morente flamenko kantari espainiarrari dien miresmena adierazteko hartu zuen 'Amorante' izen artistikoa Iban Urizarrek (Elgoibar, 1975), bakarkako proiekturako. 2014ko martxoan eman zuen estreinako kontzertua Azkoitiko Matadeixen, musikalki askotan harremandu duten Maite Arroitauregi 'Mursegorekin' batera. Geroztik dozenaka kontzertu eman ditu, eta estreinako diskoarekin dator orain: 'Bat edo hiru'. Aitor Etxebarriaren Forbidden Colours diskoetxearekin ekoitzi du, eguaztenean aurkeztu zuen Bilbon eta promozio lanetan dabil orain hara-hona. Telefonoak hirutan jo dio solasaldian zehar ere. Ez du ezkutatu neketsua zaiola “saltzen” jardun beharra, baina hori ere, gaur, musikariaren egitekoa da.

- AINARA ARGOTIA -

♦ **Badira bost-sei urte zure bakarkako proiektua hasi zenuenetik. Geroztik eman dituzu dozenaka kontzertu eta EP digital bat eta single bat ere sortu dituzu, baina hauxe duzu zure aurreneko diskoa. Ustez irakurria dizut ez zinela zure lana diskoan eman zalea. Zergatik orain?**

Esan banuen, diskoa ez argitaratzeaz baino gehiago diskoa CD formatoan argitaratzeaz ariko nintzen ia seguru. Beti izan dut gogoia euskarri fisikoan zerbait emateko, baina beti esan izan dut musika entzuteko euskarri erabat zaharkitua iruditzen zaidala

CDa. Nik neuk ere ez ditut erabiltzen ia. Spotify plataforma digitala erabiltzen dut gehiago. Plataforma digitaletan inoiz ez beste musika daukagu esku-eskura, espazio fisiko batean inoiz kabituko ez litzatekeen katalogoa eskaintzen digute. Horrek musika entzuteko modua aldatu du, jakina. Disko denda gehienak ere itxi dituzte, eta irauten duten bakarrak binilozko diskoen aldeko apustua egin zutenak izan dira. Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* liburuan ere argi esaten zaigu: 'CDen aroa amaitu da'. Formato baten alde egitekotan, nik gustuko ditudanetako baten

alde egingo nuke beti eta oraingo hau biniloan eman dut argitara, iruditzen zitzaidalako kantuen ezaugarriengatik biniloan eman behar nuela. Biniloa beste liturgia bati lotuta dago. Ez dut erromantiko jarri nahi, baina konexio sakonagoa eskaintzen du musikarekin. Nolanahi ere, diskoa plataforma digital guztietan ere badago entzungai.

◆ **‘Egiten dudanean saiatuko naiz diskoa mimatzen’, esan zenuen. Azalaren eta tipografiaren inguruko detaileak aletu dituzu sare sozialetan, mimosz. Gustura zaude emaitzarekin?**

Oso gustura. Diskoa mimosz egin dugu, bai, eta estetika ere zaindu dugu, inportantea delako, eta are gehiago egun, objektuagatik pagatzen dugulako musikagatik baino gehiago, musika dezentez merkeago, edo are, debalde ere entzuteko aukera ematen digutelako plataforma digitalek. La Caja de Tipos diseinu enpresak hartu du diseinuaren ardura, Ander Sanchez eta Maria Saez lagunek. Ander Sanchezek egiten zizkigun guri Sinuöseren hasierako kartelak eta izugarri gustatu izan zaizkit beti. Diseinuan oso jantzita daude biak, ni ez bezala, eta niretzat luxu bat izan da haiekin lan egitea. Berez, ni ez naiz oso emana gauza hauetara, ez nago oso jantzia marketin kontuetan ere, baina egia da lana non, nola eta zein neurritan erakusten den oso garrantzitsua dela. Ni ez naiz sekretu guztiak haizatzearen aldekoa, eta beharbada ez nukeen hala egingo neure gain hartu izan banu lan hori, baina ni baino jantziagoak direnei kasu egin diet.

◆ **Zuzenekoetatik ezagutzen zaitugu, eta zuzenekoetan ohi-tuak gaituzunetik diskoan entzun dugunera salto halako bat igarri dugu. Zuzenekoetan Amorante ludikoago bat ageri zaigu. Diskoa ilunagoa-edo egin zaigu eta entzulego muga-tuago bati lotua irudikatu dugu.**

Nire jarduna zuzenekoetarako pentsatuta dago. Entsegu guztiak zuzenekoetan pentsatuz egiten ditut. Oholtzan gauzatzen da nire proiektua, ikusle-entzuleekiko hartueman zuzenean. Horregatik esaten dut nire kantuek beti daudela laborategian. Kontzertuz kontzertu nabilenean, errepikatzen ari naizen sentsazioa ere izaten dut batzuetan, eta hori saihesteko, kantu guztietan lagatzen dut tarte bat zabalik momentuan betetzeko; ‘Idatzi hemen’ halako bat, badakizu. Soinuak eta melodiak sortu eta kantua momentuan eraikitzea gustatzen zait. Kantuek badute konposaketa bat, jakina, baina momentuan-momentuan eraikitzen dut asko, eta kantuek kontzertutik kontzertura aldatzen dira. Erosoago sentitzen naiz gidoirik gabe. Estudioan grabatzea nekagarriagoa zait; ezin dut uka. Hala ere, nik ez dut erabakitzen diskoan *moldaketa* bat sartu edo ez, zuzenekoan pentsatuz. Bi jardun paralelo dira. Diskoan zuzenean joko ez ditudan gauzak daude, eta era berean, diskora eramatea zentzurik ez duen gauza asko jotzen ditut



Arg.: Guillermo Latorre

“Diskoan zuzenean joko ez ditudan gauzak daude, eta era berean, diskora eramatea zentzurik ez duen gauza asko jotzen ditut zuzenean”

zuzenean. Elkar elikatzen diren bi jardun dira niretzat zuzeneko lana eta estudiokoa.

Eta diskoa jendearean defenditzeaz zer esango dizut? Ez da nire asmoa. Zazpi kantuko diskoa da, eta horietatik lau zuzenekoetan jotzen ditut, beraz, beste askok baino portzentaje handiagoan defendituko dut, nahiz eta *a priori* zaila eman dezakeen. Nolanahi ere, ez dut zuzenean defenditzeko egin. Zuzeneko jardunetik berezita sortu dut diskoa.

◆ **Heriotzaren gaia dantzan dabil disko osoan zehar. Bizi dugun garaiarekin lotura du, akaso?**

Diskoa abenduan grabatu nuen, pandemia hona iritsi aurretik, baina bai, diskoa iluna irten da, pandemiaren gogorrean sortu izan bagenu bezala. Hasi ginenean, urtebete zen aita hil zitzailgula, osaba Jose Mariren [Ondarza] heriotza ere oso presente neukan artean eta dolu-prozesu guzti horri aurre egin behar izan nion, seme-alabak heriotza ondo ulertzeko umeegiak diren garai batean. Baina irakurketa hori orain egin dut, diskoa grabatu ondorenean. Ez da kontzienteki egin dudana zerbait izan. Bai, udazken-negurako diskoa irten zaigu, eta gustura gaude emaitzarekin.

◆ **Musikari askorekin eta askorentzat lan egindakoa zara, baina disko honetan kolaborazioak puntualak dira.**

Hala da, bai. Diskoko instrumentu guztiak nik jo ditut, baina hiru bat kantutan, Mariano Hurtadok kontrabaxuarekin lagundu dit eta Joseba Irazokik gitarra-orro bat sartu du *Condor* kantuan. Letra gehienak, berriz, nireak dira. Ez naiz sekula letrista ona izan edo ez dut nire burua halakotzat izan, baina garbi xamar izan dut zer kontatu nahi nuen. Bestela, Joxan Artzeri hartu diot *Ama hil zaigu* eta Uxue Alberdik idatzi dit *Juliana*. Donostiako Trinitate plazan egin zen esklabu salmenta baten inguruko kanta da *Ju-*

liana. Ekoizpen lanak Aitor Etxebarriak egin dizkit. Intuzioz lan egiten du, eta ukitu txikiak egin ditu diskoan, finak. Oso eskertua nago.

♦ **Zazpi kantu biltzen ditu diskoak. Entzungai jarri zenuten aurrenekoa, Joxan Artzeren ‘Ama hil zaigu’ poemaren bertsio musikatua da. Mikel Laboak ere musikatu zuen eta ‘Bat-Hiru’ disko arrakastatsuan (1974) eman zuen. ‘Bat edo hiru’ jarri diozu zuk izenburua zure lanari. Zer dela eta izenburu hori? Loturarik badu Laboarekin?**

Bai, badu lotura-halako bat, baina lotura ez da kantu partikular honekin eta ezta Mikel Laboarekin bakarrik ere. Izenburuarekin lotuta badaude arrazoi batzuk, esan asmo ez ditudanak, eta badago esplikazio erreal bat, hau: Askotan esaten didate hau dela nire estreinako diskoa, baina aurrez baditut EP digital bat eta single bat sortuta. Beraz, bai, hau nire hirugarren erreferentzia da, baina nire lehenengo diskoa da? Horri egiten dio aipamena *Bat edo hiru* izenburuak.

♦ **Ez zara etiketa zalea, baina zuri buruz esan izan da gauza berria zarela gure kantagintzan. Deitu izan dizute herri musikaren amorante eta esan izan dute, edo esan izan duzu, tradizioari traizio egin zalea zarela. Defini ezazu zeuk zeure burua.**

Herri musika egiten dudala esan izan dut beti (mundu anglosaxoian *popular music* esaten dutena), baina herri musika modu simple honetan ulertuta: herri batean bizi naiz eta musika egiten dut. Askotan gertatzen zaiguna da herri musika musika tradizionalari lotuegia ikusten dugula, baina 2020an eta gure gizarte askotariko honetan, herri musika hori al da? Orkestra sinfonikoko hari laukote bat joan daiteke Bilboko metrora jotzera entsegu baten ostean eta han dirua eskatu. Hori garai batean, musikan hiru mundu bereizten zirenean -klasikoa, tradizionala eta kalekoa, pentsaezina zen, baina gaur egun, herri musikan, dena kabitzen da. Eta bai, musika tradizioaletik tiratu zalea naiz, baina tradizioari traizioa egin behar zaiola uste dut. Hori bai, ez dut uste euskal tradizioa berritzen nabilenik. Begira, nik formazio klasikoa daukat berez. Tronpeta ikasketak egin nituen eta horrek baldintzatu du nire egitekoa proiektu askotan. Bestetik, gure aitak Duo Plaentxin jotzen zuen; musika tradizionala egiten zuen, beste herri batekoa, baina herri musika, eta hori ere jaso dut, eta bi mundu horiek, akademikoa eta tradizionala, oso estankook iruditu izan zaizkit beti eta sentiitu izan dut hausteko beharra. Beti izan naiz leihoak zabaldu eta haize berriari sartzen uztearen aldekoa.

♦ **Tronpeta, armoniuma, loopa, korneta, zintzarria, pedal efektuak... eta kantaera berezi hori. Ahotsa, kantaera, bada zure bereizgarrietako bat. Esana duzu Amorante hitzetatik abiatu izan dela beti. Lotuta doaz.**

Bai, hori hala da. Ez zait gustatu nire ahotsa, ahots tinbre hori, baina denborarekin, onartu dut. Argi neukan nire kantaera propioa bilatu behar nuela eta barruan neukana onartetik etorriko zela hori. Onartu dut nire ahotsa eta erabili egin dut Amoranter pertsonalitatea emateko. Eta gero, bai, erabiltzen dut

“Musikan beti izan naiz leihoak zabaldu eta haize berriari sartzen utzi zalea”

autotunea, nirea den kantaera horri beste jite bat emateko. Askok ikusi dute hor tradizioari traizioa egitea, herri kanta bati autotunea edo artifiziala den zerbait gehitzean, baina nik hor ez dut inolako arazorik ikusten.

♦ **Antton Iturberi emandako elkarrizketan esan duzu: “Euskal panoraman badago gauza interesgarri andana, eta egongo da etorkizunean ere, kultura akatzen ez badute lehenago”. Hitz egin dezagun kulturaz, garai zailean dator zure lan hau ere-eta.**

Begira, ni zorteduna naiz, baina ez da hori denen egoera. Ni neu irailan gelditu gabe nabil kontzertuak ematen. Egon naiz Oviedon, Valentzian, eta Portugalen, eta Santiagon, Madrilan eta Alacanten ere lotuta dauzkat kontzertuak. Diskoaren harira, badakit Euskal Herrian ere irtengo zaizkidala kontzertu batzuk. Baina ez da hori denok bizi duguna. Eta gehiago esango dizut. Gu, sortzaileok, katebegi bat baino ez gara kulturaren kate prekarioan. Kulturgintzaz ari garenean gudan jartzen da begia, eskaparatean gaudenongan, baina gutako asko baino okerrago daudenak badaude: mahai-teknikariak, argiztapenekoak... Kulturak enplegu asko sortzen ditu, eta iruditzen zait ez zaiela behar besteko arreta jartzen horietako batzuei, ez dela aintzat hartzen horiek kulturari egiten dioten ekarpena. Orain, formato txikiko kontzertuak bakarrik ari dira sortzen eta gure sektore honetan asko lanik gabe daude. Kultura ulertzeko dugun moduz ere ezkorra naiz. Kultura entretenimendurekin lotzen dugu sarri, baina hori baino gehiago da. Kultura ez da sekula lehen mailako beharren artean sartzen, baina konfinamenduan, etxean itxita izan ginen sasoiaren, premia-premiazko izan genuen. Kultur kazetari bati irakurri nion: “Musikari batek jendez lepo dagoen hegazkin bat hartu behar du, erdi hutsik dagoen antzoki batean kontzertua emateko”. Lokal asko itxita daude, eta besteetan ohi baino ikusentzule gutxiagoren aurrean ari gara, ikusleak musukoak jantzita eta distantzia tarteak zainduta eserita daudela. Eta ezer baino gehiago da hori ere, baina zer gertatzen da formato horretan sartzen ez diren proposamen musikalekin? Egoera latza da.

♦ **Urriaren 30ean Elgoibarren joko duzu, Herriko Antzokian, 190 lagun aurrean. Zer sentiitzen duzu?**

Herrian jotzea beti da berezia, besteak beste aretoan izango direnen %100a ezaguna izango dudalako ia segurur. Egoera den modukoa da, baina nahi nuke aho-zapore gozoarekin irtetea denak Herriko Antzokitik. Saiatuko naiz.

♦ **Diskoaren inguruko iritziak eskatu dituzu sare sozialetan. Zer jaso duzu?**

Ezer gutxi. Herri honetan edo laudorioak jasotzen dituzu edo isiltasuna. Halakoak gara.

► Miren Vallejo hil da, euskaltzale eta kulturzalea, gerra oste ilunean Elgoibarren argia egin zutenen taldeko emakumea

Euskaltzalea, kulturzalea eta abertzalea, Elgoibarko historia bizia jasotzeko egina hanean ekarpen handia egin duen emakumea. Memoria ariketa egin behar zentan, sarri jo zuen aldizkari honek ere Miren Vallejoren lekukotza bila, eta halaxe egin dute memoria historikoa berreskuratzeko lanetan ari diren Elgoibar 1936 taldekoek ere. Doktrinak gaur baino indar handiagoa zuen garaian sortu eta hezia izan zen arren, emakume irekia zen bere adinerako, hitz-jario handikoa eta buru argikoa, ia azken-azkeneraino. Zapatuan, irailaren 25ean, eman zuen azken hatsa, 97 urterekin eta esker on berbak izan dituzte kulturaren alorreko hainbat eragilek harentzat.



Errosario kaleko Vallejonekua etxean jaio zen Miren Vallejo Arriaga 1923an. Lau neba-arrebetan zaharrena zen [Bere aurretik mutiko bat izan zuten haren gurasoek, baina hogei egunera hil zen]. 3 urte zituela eskolatu zuten gurasoek eskola txikian, euskaraz, baina 6 urterekin eskola publikoetara pasatu eta erdaraz jaso zituen eskolak, harik eta 1936an gerrak dena eten zuen arte. 13 urte zituen, eta bizitza kolpetik aldatu zion gerrak. Sestaokoa zuen Vallejok aita, abertzalea, eta sortzetik bertatik jaso zuen euskararen eta aberriaren aldeko sentimendua Mirenek. Begiak bizi-bizi zituela kontatu ohi zuen 1936ko irailaren 21ean Francoren tropak Elgoibarrera sartu zirenean bere begiz ikusitakoa, bai eta ondorengo egunetan sentitutako ikara ere. "Etxean ezkutatu ginen beldurrez, baina balkoira irten ginen ikustera. Han zihoazen Plazaruntz, besoa altxata eta kantuan. Azkeneko patruila Errosario kaleko Ama Birjinaren pare aldera iritsi zenean, gure aitak 'Gora Euskadi askatuta' oihu egin zuen balkoitik. Zoratu egin zen. Hurrengo egunetan lorik ere ez genuen egin". Tropak sartzerako, Vallejotarrak Santanderrera ihes egitekotan egon ziren, baina etxean bizi zuten amama gaixotu eta bertan behera laga zuten plana. Beldurrak ez zuen Vallejo-Arriagarren euskaltzaletasuna apaldu, hala ere. Antzerkia egin zuten umetan Batzokian, euskaraz, Anjel *Mutrikuk* [gerran hil zuten] eta Antonio Manterolak zuzenduta eta gogoan zuen 9 urte eskasekin Eibarko Batzokian *Eulia eta inurria* ipuina irakurri zutenekoa. Urte askoan jarraitu zuen antzerkia egiten, eta kale antzerkiak ere egin zituen, Eztei Zaharrak esaterako, senarrarekin batera. Compañía Petachos antzerki konpainia ere sortu zuten eta Taupadak omenaldi hunkigarria eskaini zien duela sei bat urte, Elgoibarren antzerkintzarako hazia erein zuten haiei guztiei [tartean, berriki hil den Lucia Zabalar, Mirenen koinata ere bazenari].

Eliza Katolikoaren hierarkiarekin kritiko agertu arren batzuetan, eliztarra zen Miren Vallejo eta Hijas de Maria eta luistarren kongregazioen bueltan ibili ziren gartzetan neba-arrebak. Lanean, 14 urterekin hasi zen abarketaginean, amarekin, Peñalva abarketa lantegirako. Valenciagarren tailerrean ekin zion gero lanean, lastairentzako malgukiak egiten, eta ondoren, Alcorta y Cia enpresan sartu zen eta bertan jardun zuen ezkondu arte. 23 urterekin ezkondu zen, 15 urte zituenean maitasuna agertu zion gizonarekin: Pako Juaristirekin. Haren ondoan jardun zen dantzan [dantzakide izan ziren lehiaketa askotan eta dantza-epaile lanetan ere aritu izan ziren], euskara irakasten, antzerkigintzan... Haren ondoan, eta hein berean, haren itzalean, itzal handiko gizona izan zuelako senarra. Pako Juaristi izan zen Elgoibarren gerra osteko iluntasunean piztu zen argietako bat. Berak eragindakoak izan ziren hein handi batean 50eko hamarkadako antzerki emanaldiak, jaialdiak, dantza ikuskizunak eta antzekoak. Pako zen gidaria, baina motorra lagun gehiagok osatzen zuten, tartean zen Miren bera. Pakok sortu zuen 1956an estreinako gau-eskola Elgoibarren. Euskaltzainditiik lortutako baimen bati esker, bi abade-rekin eta 85 ikaslerekin eman zituen lehen pausoak, baina ordurako euskara eskolak ematen hasia zen Vallejo bere bueltan. Gero ere bai. Ikastola sortu aurretik euskarazko eskolak eman zituen Mirenek, gau eskolan ere ibili zen irakasle, eta 69an, senarra kartzelatuta izan zuen urtean, Mekanika eskolan eman zituen euskara eskolak. *Ahotsak-i* esana zion umeei liburuurik gabe irakasten ziela, baina Mekanikan Oñatibiaren liburuak eta sistema erabili zituela euskara irakasteko. Ahozko testigantza aberatsa utzi zion *Ahotsak-i* Miren Vallejok: bi zinta oso, 59 pasarte guztira, *Ahotsak.eus* webgunean atarian kontsultatu ditzakezuenak.



Lea
Olasolo
Gabilondo,
5 urte,
Elgoibar

"Bi ortzadar"



Unax
Olaso
Bastida,
6 urte,
Elgoibar

"Baserrixa, ukuilua eta zuhaitza"



“Lortu dut Joxe Mari ulertzea, epaitu gabe”



▶ JON OLIVARES

AKTOREA

Donostiako Zinemaldiko estreinaldiaren ostean, joan zen domekan estreinatua zuten ‘Patria’ telesaila HBO España kateak. Fernando Aranburuk 2016an idatzitako liburuan oinarrituta dago telesaila, eta Euskal Herriko gatazka politikoa da gai nagusia. Protagonisten artean aktore ezagun asko daude, besteak beste, Elena Irureta, Ane Gabarain, Jose Ramon Soroiz, Mikel Laskurain eta Eneko Sagardoi, eta horiekin batera telebistako aktore lanetan hasiberria den Jon Olivares (Madril, 1988). Taupada antzerki taldean hasi zuen aktore ibilbidea Olivaresek, eta urteetan jardun zuen antzerkia eta aisialdiko hezitzaile lana uztartzen, orain dela ia bi urte HBOren deia iritsi zitzaion arte. Joxe Mari ETako kideari eman dio bizia ‘Patria’-n.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **Maiatzean estreinatzekoa zen ‘Patria’ baina koronabirusaren eraginez atzeratu egin behar izan zuten estreinaldia. Azkenean, Donostiako Zinemaldian estreinatua dute. Pandemiak kalte ala fabore egin dizuela esango zenuke?**

Fabore eta kalte, biak. Niri pertsonalki, fabore egin didala esango nuke gehiago. Konfinamenduan konturatu nintzen ez nengoela prest orain etorri ahal zaidanari aurre egiteko, eta hilabete horietako atzerapena oso ondo etorri zait neure burua datorrenari aurre egiteko prestatzeko. Zentzu horretan ondo etorri zait. Baina beste alde batetik, maiatzeko estreinaldia Donostian eta Madrilan egin behar genuen, eta orain, koronabirusaren eraginez Madrilgoa bertan behera geratu da.

♦ **Kartela publiko egin zutenean polemika handia sortu zen. Sare sozialetan hainbat adituk kritikatu zuten kartela, alde bietako biktimak berdindu egiten zituelako. Nola bizi izan duzue hori?**

Liburuak berak polemika sortu zuen, te-

lesailak ere bai eta kartelak are handiagoa. Sare sozialetan zabaldu den mezua rekin ez nator bat. Nire ustez, kartel horretan ikusten da bi familia protagonisten sufrimendua. Alde baten dago aita hil dioten familiaren sufrimendua, eta beste aldean familia bateko semea ikusten da isolatuta, bakarrik, eta sufrizten baita ere. Ni bi sekuentzia horietan agertzen naiz, eta nik, Jon Olivaresek, negar egin nuen bi sekuentzia horiek grabatzerakoan. Kartela, azkenean, artea da eta artea bakoitzak bere erara interpretatzen du, baina nire ustez ez da izan hori mezua. Dena dela, aktoreak lasai egon gara polemika horren erdian. Hasieran apur bat kezkatu nintzen ez nekielako polemika hori zenbateraino zabalduko zen, baina berehala konturatu nintzen polemika gugandik at dagoen zerbait dela. Azken batean HBO katearen marketin kanpaina barruan sartzen da polemika, eta horri esker jende guztiak jakin zuen noiz emitituko zuen HBOk lehenengo kapitulua.

♦ **Zinemaldiko estreinaldiak arrakasta handia izan zuen, eta kritika onak jasozituen Telesailak.**

Sekulakoa izan zen estreinaldia. Zortzi

“Mundu hau oso gogorra da eta pandemiak are gogorragoa bihurtu du”

kapitulua jarraian eman zituzten, atsedendaldi batekin, eta emanaldia amaitu zenean harrিতa gelditu nintzen aretoan zenbat jende zegoen ikustean. Telesaila gogorra da ikusteko, eta ikusle gehienek zortzi ordu aguantatu zuten jarraian. Eurek txalo egin ziguten, baina guk ere bai beraierei, amaierara arte han egon zirelako. Egia da engantxatu egiten duela.

♦ **Zer iruditu zaizu Zinemaldiak telesaileri ere lekua egitea?**

Ondo dago. Gaur egungo telesail gehienak zine formatuan grabatzen dira, eta telebistako plataformetan pisu handia hartu dute. Lehen ez zeukaten balioa ematen zaie gaur egun telesaileri. Aurrekontu handiagoak dituzte, beste modu batean grabatzen dira eta zinearen kalitatea ematen dute. Felix Viscarret *Patriako* zu-

zendaria zine mundukoa da, eta hori narbitu da *Patriaren* ekoizpenean.

♦ **Zinemaldia barrutik ezagutzeko aukera izan duzu aurten, hain justu ere, koronabirusak baldintzatutako edizioan.**

Bai, pena izan da. Gure proiektzioa amaitu zenean bageneukan han bitizakoa gure artean komentatzeko beharra, baina ezin izan genuen inora joan. Zuzenean hotelera eta ohera. Egun intentsoak izan dira zinemaldikoak, oso nekatuta bukatu nuen.

♦ **Nola ikusi duzu zure burua pantaila handian?**

Aktoreoi, normalean, ez zaigu gustatzen gure burua ikustea eta oso kritikoak izaten gara gure buruekin. Telesaila gustatu zait, oso ondo egina dago eta niretzako sekulako pribilegioa izan da aktore horiekin lan egitea. Poztasun handia eman dit proiektua eurekin konpartitzeak, baina nik neure burua ez dut hain ondo ikusi. Aitor Gabilondok esan zidan “zure burua gustatu zaizula esaten badidazu, ez zara aktorea”. Zentzu horretan, beraz, lasai nago, eta gainera, aktore guztiok kritika oso onak jaso ditugu, eta pozik gaude.



Patriako aktore nagusiak Donostiako zinemaldian. Ezkerretik seigarrena da Jon Olivares.

♦ **Joxe Mari ETako kidearen papera egin duzu. Nola prestatu duzu zure burua haren azalean jartzeko?**

Prestaketa gogorra izan da, edo behintzat intentsoa. Alde batetik, gorputza landu behar izan dut fisikoki. Entrenatzaile pertsonal bat jarri zidaten, eta elikadura ere zaindu behar izan nuen. Zeu gimnasioko entrenatzaile batekin jardun nintzen, eta oso gustura. Nire bizkarrira 15 edo 20 bat zentimetro hazi zen denbora gutxian, baina horrez gain, psikologikoki ere prestatu ninduen grabaketa faseari aurre egin ahal izateko. Gogorra izan da grabazioa; ordu asko, gaez grabatu dugu asko, euritan... Ni mentalki gogor egotea ere bazen bere ardura. Zentzu horretan zorte handia eduki dut entrenatzailearekin. Eta pertsonaia bera sortzeko ere lan handia egin dut. Dokumentalak ikusi ditut, informazio asko irakurri dut, Aitor Gabilondo, Felix Biscarret eta Oscar Pedrazarekin asko hitz egin dut eta nobelak berak ere asko lagundu dit. Nobelak sakon lantzen ditu senideen arteko harremanak eta hortik ere informazio asko lortu dut. Azken batean Joxe Mari

“ETA, Euskal Herria edo Espainia ezagutu gabe ere ulertzen da telesaila”

ulertzen ahalegindu naiz, epaitu gabe. Bere barruan zer daukan jakitea ezinbestekoa da, ulertzeko zerk bultzatzen duen bere erabakiak hartzera. Esango nuke lortu dudala Joxe Mari ulertzea, epaitu gabe. Eta alboan Elena [Irureta], Ane [Gabarain], Loreto [Mauleon], Eneko [Sagardo] eta Mikel [Laskurain] bezalako aktoreak edukitzeak ere asko lagundu dit.

♦ **Joxe Marik eta Jon Olivaresek ba al dute antzekotasunik?**

Bai, badaukate. Ni neu ere fisikoki altua naiz Joxe Mari bezala, eta biok gara oso energikoak. Bera inpulsiboagoa da ni baino, nik gehiago neurtzen ditut nire ekintzak, baina indar handikoak gara biok. Lagunen artean daukan rolaekin ere

momentu batzuetan identifikatuta sentitu izan naiz.

♦ **Aktoreak paper txikiekin hasten dira normalean, eta askotan protagonista paperak lortzea ez da erraza izaten. Zu paper handi batekin estreinatu zara telebistan. Ez da hori ohikoena.**

Mikel Laskurainek esan zidan bera Hirugarren Mailatik Txapeldunen Ligara igo dela, baina ni zuzenean erregionaletik Txapeldunen Ligan jokatzera pasatu naitzela. Badakit sekulako zortea eduki dudala, eta hau ez dela betirako. Kasualitatez iritsi naiz, baina hor mantentzea zaila dela badakit.

♦ **Nola iritsi zara ‘Patria’-ra?**

Bada ordua egia aitortzeko: Mikel Laskurainek eman zien nire kontaktua produktorakoei. Mikel ordurako barruan zegoen, eta Eneko [Sagardo] ere bai. Enekoren anaiaren papera egiteko mutil altuago baten bila ari ziren, aurpegiera jakin baten bila ari ziren. Pablo Traperok ikusi ninduenean argi eduki omen zuen ni nintzela Joxe Mari, eta Trapero lantaldetik jausi zenean kezka puntu bat izan nuen. Aitor Gabilondok ere esan dit hasieratik ikusi zuela argi. Itxura fisikoaz gain, aktore ona naizela ere adierazi dute, eta alde horretatik pozik nago. Abenduan beteko dira bi urte HBOtik lehenengo deia jaso nuenetik. Taupadaren entsegu batean nengo deitu zidatenean, oso ondo gogorratzen dut. Dei hura jaso nuenean uste nuen nire bizitza erabat aldatuko zela bat-batean, baina luze joan da prozesu guztia. Egunerokotasunean aldatu zen nire bizitza, baina, orain hasi naiz gehiago al daketa igartzen.

♦ **Joxe Mariren papera egiteko aukeratu zintuztela jakin zenuenean, zer sentitu zenuen?**

Une hartan ez nuen liburua ezagutzen, eta Joxe Mari bera ere ez. Liburuari buruzko informazioa eta kritikak irakurtzen hasi nintzen, eta hasieran sentitu nuen kezka moduko bat, baina azken batean gu aktoreak gara eta edozein paper egiteko prest egon behar dugu. Taupadan bertan ere egin izan dut naziaren papera, fatxarena, hiltzailearena... Besteren ba-



tean agian tokatuko zait Guardia Zibilaren papera egitea, eta orain ETAko kide batena egitea tokatu zait. Egia da izenburu honek badaukala motxila bat gainean, baina oinarrian bi familien arteko harremanak dira, bakoitzak bere mina du eta min hori nola bizi duten azaltzen du. Baina paper baten aurrean zalantzak edukitzea normala da. Orain ere beste lan batean nabil, eta horren aurrean ere izan nituen nire zalantzak.

♦ **Errealitatearekin antzekotasun handia dauka istorioak, baina fikzioa dela nabarmendu dute zuzendariak.**

Bai, eta hala da. Pertsonaiak ez dira existitzen, herria ez da existitzen... Ikusleak aurkituko ditu errealitatearekin antzekotasunak, eta pertsonaiaren batekin identifikatuta sentituko da seguru, baina beste edozein fikziozko istoriotan gertatzen den moduan. Adituek esan digute prentsaurreko askotan hau dela gatazka politikoaren inguruan falta zen harria, baina ez gaude horrekin konforme. Harri bat gehiago da, Euskal Herriko gatazka politikoari buruzko istorio bat gehiago kontatzen du *Patria*-k, ikuspegi bat gehiago. Agian orain arte ipini ez den lekuan jarri du fokua *Patria*-k eta uste dut eman dezakeela gatazkari buruz hitz egiteko aukera. Hori bai, iruditzen zait hasieratik bukaerara arte ikusi beharreko telesaila dela. Ez du balio bi kapitulu ikusi eta kritikatzeko, amaiera ikustea garrantzitsua da.

♦ **Elgoibarren eta Soraluzen ere grabatu dituzte Patriako hainbat pasarte. Nola ikusi dituzte telebistaz?**

Oso kurioa izan da. Nik oso ondo ezagutzen ditut bi herri horiek, eta telesailan bi herriek bat egiten dute. Sekuentzia bat hasi daiteke Plaentxiko kaleetan eta hurrengo planoan Elgoibarko plazan jarraitu. Kurioa da efektua. Plaentxiko kaleek ematen dute aukera Aitor Gabilondok lortu nahi zuen efektua lortzeko, eta Elgoibarko plaza oso polita da. Karakate inguruetan ere ibili gara, eta Plaentxiko baseri baten ere bai, eta grabazioa amaitu eta hilabete gutxira su hartu zuen.



♦ **HBO nazioartean ere ikusten da. Uste duzu nazioartean ere izan dezakeela arrakasta 'Patria'-k?**

Bai, 64 herrialdetan estreinatu da aldi berean, European, Estatu Batuetan eta Hego Ameriketako hainbat herrialdetan. Interes handia dago nazioartean, egia esanda. Telesaila edozeinek ulertzeko moduan eginda dago; ETA, Euskal Herria edo Espainia ezagutu gabe ere ulertu daitekeen telesaila da, bereziki, familiako kide bakoitzaren sufrimendu pertsonalean oinarritzen delako. Nazioartean ere arrakasta izango du, seguru.

♦ **Uste duzu lanerako atea irekiko dizkizula 'Patria'-k?**

Ba ez dakit, baina izan daiteke. Momentuz beste telesail baterako deitu didate, eta hori grabatzen ari naiz orain.

“Ez dut Taupada Antzerki Taldea inoiz ahaztuko”

Taupadarekin ere harremanetan jarraitzen dut, eta azaroan gustatuko litzaidake *Dramatitragoak* antzezlaneko emanaldi batean parte hartzea. Ez dut Taupada sekula ahaztuko. Orain beste konpromiso batzuk dauzkut eta beste maila batean aritzen naiz Taupadan, baina ahal dudan neurrian beti egongo naiz Taupadan parte hartzeko prest. Niri antzerkia gustatzen zait bereziki, eta antzerkia egiten jarraitu nahiko nuke. Aktore gehienek esaten dute antzerkia nahiago dutela, baina antzerkitik bizitzea oso nekeza da eta bizitzeko ezinbestekoa da telebistan lan egitea. Nik ez dakit zer emango didan etorkizunak. Irakaskuntza ikasketak ere badauzkat eta agian egunen baten Hezkuntzan amaituko dut. Ó urte nituela esan nion amari Hezkuntza Bereziko irakaslea eta bikoizketa aktorea izan nahi nuela. Bi ibilbideak dira oso nireak, eta edozertarako irekita nago. Mundu hau gogorra da, ez da batere egonkorra, eta pandemiarekin are ezegonkorragoa bihurtu da. Espero dut pandemia egoera hau urtebete inguruan gaintitzea eta egoerak hobera egitea.

Amama ipiñi: Oso erraz.
 Dana amama ipiñi dizue gaurko partiduan.

Aitor Etxeberriaren lan bat saritu dute Irungo margo lehiaketa batean

Aitor Etxeberria margolariaren *Morphosis* lanak epaimahaiaren sari berezia jaso zuen joan zen astean Irungo Adour Bidasoa margo lehiaketan. Aurten, 60 margolarik baino gehiagok aurkeztu dituzte lanak sariketara eta Helena Elbustok, Javier Sagarzazuk, Mari Jose Aranzastik eta Xabier Arribasek osatu dute epaimahaia. Lehiaketa bera ez da pintura azkarreko lehiaketa. Urtean zehar egindako edozein lan aurkeztu ahal dute margolariek, eta teknika eta gai aldetik librea da. Aurkeztutako lan guztien artetik 30 lan onenak apartatu zituzten aurrena epaimahaikideek eta horien artean hiru nabarmendu zituzten gero. Sari nagusia Juliette Junek eskuratu zuen eta 2.500 euro eta garaikurra jaso zituen saritzat. Bigarren lanik onena Aitor Etxeberria margolari mendarorarrarena izendatu zuten. Donostiako Kur galerian ikusgai izan zuen *Morphosis* erakusketako lan bat aurkeztu zuen lehiaketara Etxeberriak, izen berarekin, eta horixe saritu diote 500 euro eta garaikurrarekin. Hirugarren sari bat ere banatu zuten, baina, Irunen, Artista Gaztearena. Carlos Gorospe margolariaren *Imaginación trabajando* lanari egokitu zitzaion saria. Lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak Irungo Amaia Kultur etxean izango dira ikusgai, datorren domekara arte, urriaren 11a arte.



Elgoibarko Ludoteka eta Gaztelekuko lokalak berriro zabalik

Irailaren 30ean zabaldu zuten Gaztelekua, eta urriaren 5ean zabalduko dute Ludoteka. Gaztelekuak ohiko ordutegiarekin funtzionatuko du aurrerantzean: asteazken, eguen eta domeketan 17:00etatik 20:00etara eta bariku eta zapatuetan 17:00etatik 21:00etara. Ludotekan, aldez, txandakako sistema jarriko dute martxan. Haurrak ikastetxeka eta adinka banatuko dituzte, eta baita baita bere egutegia izango du. Taldeak mantendu ahal izateko hartu dute erabaki hau. Lokalen erabilerari dagokionez, gehienezko edukierak eta joan-etorriak zehaztu dituzte. Bestalde, segurtasun eta higiene neurriak gogorarazteko kartelak jarri dituzte, eta garbitasuna, desinfekzioa eta aireztapena indartu dituzte. Komun bakarra egongo da erabilgarri, sukaldea ez dute erabiliko eta lokala irekita dagoen bitartean atea irekita egongo da. Azkenik, aipatzekoa da COVID gela egokitu dutela haur edo neraberren bat isolatu beharra izan ezker. Informazio gehiagorako: Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Saila (943 741 050), Ludoteka (943 748 883) edo Gaztelekua (943 743 228).




Elgoibarko Udal Musika Bandaren itzulerakoa, plazan

Otsailaz geroztik estreinako zuzeneko kontzertua eman zuen Elgoibarko Udal Musika Bandak domeka eguerdian, Kalegoen plazan, eta herritarrek ez zuten hutsik egin. *Euskal Herriko Jaiak* izena jarri zioten izena egitarauari, eta herrietako jaietan jotzen dituzten martxak, dianak, kalejira eta melodiak aukeratu zituzten itzulerarako.

Gehienez 190 ikusle hartuko ditu Elgoibarko Herriko Antzokiak

Egungo osasun krisira egokitu behar izan du Herriko Antzokiko programazioa Elgoibarko Udalak, eta segurtasun neurriak ere zorroztu ditu. Hasteko, gehienez 190 lagun sartu ahal izango dira Herriko Antzokian datozen hilabete-erako programaturako ikuskizunetan. Ikusleak, gainera, tartekatuta jarriko dira, segurtasun tarteak zaintzeko. Programaturako ikuskizunen berri ere eman du Kultura Sailak eta jakinarazi du urriaren 23an emango duten *Zaldi Urdina* antzezlanerako sarrerak salgai daudela dagoeneko (Kutxabanken bidez eros daitezke edota lehiatilan, zapatuetan, 19:15etik 21:45era. Horren harira zehaztu dute antzezlan hau ikusteko martxorako sarrerak erosi zituzten 9 lagunek ez zutela orduan sarreraren dirurik jaso bueltan eta horiek, ezinbestean, lehiatilara hurbildu beharko direla dagoen sarreraren bila, antzezlan ikusteko gogoz baldin badira.



Nerea Isasi zinegotzia eta Jose Miguel Arranz.



Nerea Isasi zinegotzia eta Amalur Aranda.

Jose Miguel Arranz erandioarraren lanak irabazi du Mendaroko margo lehiaketa

Aire libreko margo lehiaketa antolatu zuen zapaturoko Mendaroko Udalak, eta egunean bertan banatu zituzten sariak. Guztira 31 margolarik parte hartu zuten lehiaketan: bederatzik helduk eta 22 gaztetxok. Nagusietan, Jose Miguel Arranz erandioarraren lana nabarmendu zuen epaimahaiak eta 14 urtez azpikoetan Amalur Aranda mendaroarrarena eta Irati Larreta ibarrarrarena. 700 euro eta garai-kurra jaso zituen saritan Arranzek. Sari gehiago ere banatu zituzten, dena den. Helduen sailean, Jorge Lopez bilbotarrarena izendatu zuten bigarren koadrorik onena eta 500 euroekin saritu zuten. Hirugarren accesita, berriz, Jose Reyes leioarrarentzat izan zen eta laugarrena, Rikardo Azkakorta bergararentzat. 300na euro jaso zituzten saritan. Gaztetxoetan bi maila bereiztu zituzten: A mailan, Amalur Aranda mendaroarrak irabazi zuen, eta B mailan, Irati Larreta ibarrarrak. Margotzeko materiala jaso zuten biek saritan. Parte hartu zuten gainerako gaztetxoei marrazteko koaderno eta arkatz bana banatu zizkieten. Epaimahai Aitor Etxeberria herriko margolariak, Bingen De Pedrok eta Carlos Galarragak osatu zuten. Bukaeran helduen kategorian bigarren saria eskuratu zuen koadroa zozketatu zuten herri-fak erosi zituzten herritarren artean, eta Julian Segundori egokitu zitzaion saria. Margo lehiaketak iraun zuten bitartean, batukada talde batek girotu zuen herria.

'Udako goiza' argazki erakusketa antolatu du Ongarri Argazkilari Taldeak

Eri Makita argazkilariaren *Udako goiza* izeneko bilduma jarriko du ikusgai Ongarri Argazkilari Taldeak gaur, Kultur Etxeko sotoan. Eri Makita Japoniako Chiba prefeturan jaio zen 1968an. Tokioko unibertsitatean matematikak ikasi zituen, baina 25 urterekin hasi zuen argazkilaritza ibilbidea. Bere lanak hainbat museo eta arte galeriatan erakutsi dituzte, besteak beste, Frantzia eta Japonian. Gaur egun Japoniako Yamanashi prefeturan bizi da, naturaren iheskortasuna bere kamerarekin harrapatzeko ahaleginean. Urriaren 17ra arte egongo da ikusgai. Astelehenetik zapatura, 18:30etik 20:30era.



LANA.....

Eskaintzak

Euskal dantzak irakasteko lagun bat behar da, Mendaron. ☎ 687 203 173

Eskaerak

Umeak zaintzeko edo eskolara eramateko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat. ☎ 663 695 410

Gurekin bizitzeko etxeko langilea behar dugu, adinekoak zaintzeko. Euskalduna. Laguntza izango luke. ☎ 615 006 733

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Euskalduna naiz eta titulazioa daukat. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. Ordutegi malgua daukat. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 382 330

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko eta lokaletako garbiketa lanak egin ere. Adinekoak zaintzen eskarmentua daukat eta ziurtagiri soziosanitarioa ere badaukat. Berehala lanean hasteko prest nengoke. ☎ 688 739 536

Klase partikularrak emango nituzke. Lehen Hezkuntzako ikasleei ikasgai guztietan laguntzeko moduan naiz, eta LHtik gorako mailetan, bereziki, giza-zientzien alorreko gaiak emango nituzke. Euskalduna naiz. ☎ 639 635 939

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 980 531

Edozein lan egiteko prest nago. 12 urteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen. ☎ 651 573 192

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 620 765 432 (Olatz).

Astelehenetik ostiralera umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Ordutegi malgua daukat eta berehala hasteko prest nago. ☎ 680 568 659

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 610 668 183

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 229 972

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 635 802 382

ETXEBIZITZAK.....

Bikote elgoibartarrak arrazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan. ☎ 619 966 696

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua

Gure komunitateko etxejabe bat bere etxebizitzan obra egiten ari da, eta berokuntza sistema zentraletik deskonektatu nahi du, gas bidezko berokuntza sistema indibiduala jartzeko. Jakin nahi nuke zenbateko gehiengoa behar den hori baimentzeko, eta baita zein gastu ez lituzkeen ordaindu beharko.

Jabekide guztiak behartuta daude gastu orokorre eustera, baina legeak ahalbidetzen du komunitateak legez adierazitakoez beselako sistemak ezartzea, jabekideek gastu orokorrak ordaintzen nola lagundu behar duten zehazteko. Hala ere, ez da nahastu behar gastuaren indibidualizazioa eta jabe bat zerbitzu zentraletik bereiztea. Lehenengo kasuan, indibidualizazioak esan nahi du komunitateak gastua banatu dezakeela, hala erabakitzen badu, jabe guztiak beren pisuan edo lokalean jarriko luketen kontagailutik eratorritako kontsumoen arabera. Nolanahi ere, guztiontzako ondorioak dituen erabaki kolektiboa izan beharko litzateke. Beste gauza bat da jabe batek zerbitzu batetik bere kontura banandu nahi izatea; kasu horretan, eraketa-titulua eta ekipamendu komunak aldatzen dituen bereizketa baten aurrean gaude, eta, orduan bai, berokuntza-sistema zentraletik deskonektatzeko eta gas bidezko banakako berokuntza-sistema bat jartzeko, jabekide guztien alde zuzentzeko adostasuna beharko litzateke.

Gomendioa. Zein egoeratan gauden jakin behar dugu, zuzen jokatzeko.



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Mar-tin!** Urriaren 7xan 2 urte haundi beteko dozuz eta danok ospatuko dogu zurekin! Patxo potolo bat Sararen eta etxeko guztien partez.



Zorionak, **Malen,** astelehenen 11 urte beteko dituzulako! Primeran pasa! Familiakoen eta, bereziki, Unaxen partez!



Zorionak, **Itxaso,** asteazkenean 7 urte bete zenituelako. Etxekoan partez muxu handi bat, bereziki, Kairen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralareraino: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

*Inoprimidologi zerbitzuei dagozuegu.
Dereu ordua hartzeko.*



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

WHIRLPOOL FFB8448BV.SP ARROPA- GARBIGAILUA



449 €

- Motor-inverter ● 14 programa eta funtzio bereziak: Artilea, 30 min. funtzio azkarra, Clean+, Freshcare+, Steam Refresch ● Pantaila digitala ● Garbiketa ordua programa daiteke, 01:00etatik 24:00etara
- Energia-mota A+++ -% 30 ● 8 KG karga ● 1400 RPM

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

2 BARIKUA

10:00-13:00 / 17:00-20:00 Stock kale azoka. Txankakuak antolatuta, stock azoka egingo dute merkatariak, nor bere denda atarian.

18:30 Argazki erakusketa: 'Udako goiza'. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

3 ZAPATUA

9:30 'Izan Bidea'. Morkaikora igoko dira elgoibartarrak, Kalegoen plazatik. Autoz joaten direnekin 10:45ean batuko dira Aiastian, eta 11:30ean iritsiko dira Morkaikora. Talde argazkia aterako dute han.

9:30 'Izan Bidea', Mendaron. Garaluz, Otarre eta Gaintxipixa tontorrek egingo dituzte. Udaletxe azpian batuko dira.

10:00-13:00 / 17:00-20:00 Stock kale azoka. Txankakuak antolatuta, stock azoka egingo dute merkatariak, nor bere denda atarian.

'EUSKARA ALA EZKARA'

Urriak 3, zapatua

Euskara ala Ezkara Elgoibarren?



Gurean euskegintza eta kulturegintza bideratzeko atsegin kolektiboa

9:30 'Euskara ala Ezkara' jardunaldia. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatuta, Dijitalidadea enpresarekin elkarlanean.

10:00 - 10:30 Zer dago egin nahi dugunaren oinarrian? Marko teorikoa. Gotzon Barandiaran.

10:30 - 11:00 Egin al da antzerakorik beste inon? Azpeitiko esperientzia.

11:00 - 11:30 Zer kontatu didazue elgoibartarrek? Koadernoan jasotakoa. Gorka Arrese.

11:30 - 12:00 Atsedena, kafea eta pastak.

12:00 - 14:15 Tailerra 1: Ondorioen gaineko gogoeta.

14:15 - 15:45 Bazkaria

15:45 - 17:45 Tailerra 2. Kulturaren bilgunea. Zer nahi edo behar dugu? Zertarako?

Zinea (Herriko Antzokian)



'Va por nosotras'

2 barikua: 21:30

3 zapatua: 19:00 / 22:15

4 domeka: 19:00

5 astelehena: 21:30

'Bihurri, jauretetik kale gorriara'

4 domeka: 16:30

'Papicha, sueños de libertad'

(Ongarri zinekluba)

8 eguena: 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00


GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
2 BARIKUA	3 ZAPATUA	4 DOMEKA	5 ASTELEHENA	6 MARTITZENA	7 EGUAZTENA	8 EGUENA	9 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



Miren Vallejo Arriaga

2020ko irailaren 25ean hil zen, 97 urte zituela
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Hainbeste maitte izan gaittuzu...
Hainbeste maitte izan zaittugu...
Beti gure bihotzean...**

Zure familia



Inazia Garate Elorza

2020ko irailaren 18an hil zen, 95 urte zituela.
Haren oroimenez meza izango da, domekan, urriaren 4an,
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

**Sortu zinen enbor beretik
sortuko dira besteak.**

Maite zaitugu, familiakoak.



I. URTEURRENA

Koldo Lizarralde Elberdin

2019ko irailaren 23an hil zen, 69 urte zituela.

**Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.**





Eraikitzen:

AB ANTON BILBAO
GRUPO



- **Elgoibarko erdigunean.**
- **10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.**
- **Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.**

Informazio gehiago